



JARRAIPENIK IZANGO EZ DUEN OFIZIOA

Carmen Onsalok eta Juan Belaunzaranez 1940az geroztik artisauek erabiltzen duten erretzen dute >7

TOLOSALDEKO ETA LEITZALDEKO

hitza



Asteartea
2009-12-08

VII. URTEA 1.847. ZENBAKIA
ESKUALDEKO EGUNKARIA

WWW.TOLOSALDEKOHITZA.INFO



LUIS JAUREGIALTZO / ARGAZKI PRESS

AITOR MENDILUZE BERTSOLARIA

«Finalean txapela janzteak ez nau gehiegi kezkatzen»

IRURA Hilaren 13an BECen izango da Bertsolari Txapelketa Nagusiko finalean, beste zazpi finalisten artean; gailurra jo gabe dagoela dio



A. ALTUNA

KARLOS LINAZASORO IDAZLEA

«Libre sentitzen naiz liburuak idaztean»

TOLOSA 'Etxe Hutsean' poesia liburua eta 'Urperatze handia' poesia lana idatzi ditu 2

Titirijai birplanteatu behar da Topic-ekin Arretxeren arabera

TOLOSA Oso gustura daude aurtengo Titirijai Txotxongiloen jaialdiak eman duenarekin 4

44
DURANGOKO
EUSKAL LIBURU
ETA DISKO AZOKA
2009ko Abenduaren 8tik 13ra

ABENDUAK 8

11:00 ELKARTEGIA, PUNTUEUS ETA PUNTCAT PROIEKTUEN AURREKARIAK ETA GAURKOTASUNA

+ HAUR LITERATUR ARETOKA, AURKEZPEN ARETOKA



E Elkarrizketa**KARLOS LINAZASORO** | Idazlea

Tolosa » Karlos Linazasoro tolosarrak bi lan berri kaleratu ditu aurten. 'Etxe Hutsean' poesia liburua lehenik eta argitaratu berri duen 'Urperatze handia' abentura lana.

AINHOA ALTUNA

Narrazioa, haur eta gazte literatura, antzerkia, nobela, poesia, saia-kerak... denetarik jorratu du Karlos Linazasorok gaurdaino. Euskal Filologiako ikasketak egin ondoren liburu artean egiten du lan, Tolosako Udal Liburutegiko ardura duna baita dazlea.

90ean lehen liburua argitaratu zenuenetik hainbat lan kaleratu dituzu, ipuinak, poesia liburua, narrazioak... Zer idazten duzu gustuko? Zein generotan sentitzen zara eroso?

Egia esan genero guztietan sentitzen naiz eroso, aldatzea dut gustuko. Nobelaxoren bat idatzi ondoren poesia idatz dezaket, ipuinak... betiere gustuko dudana lan motzak egitea da. Aforismoak, aipuak, ipuin laburrak, antzerkiak, gazteentzat, helduentzat... Apur bat denetarik egitea dut gustuko.

Liburuzaina zara Tolosako Udal Liburutegian, liburuak idatzten dituzu, irakurri ere bai... Zer da liburua zuretzat?

Liburua askatasun gune bat da. Literatura, azken aldian geratzen zaigun askatasun gune bakarrenetakoa dela esango nuke. Liburuak idatzi edo irakurtzerakoan libre sentitzen naiz. Inork ez du eskurik sartzen eremu honetan, erabat pertsonala delarik.

Aurten lehenik 'Etxe Hutsean' poesia liburua idatzi duzu. Gurasoei eskaintzen diezu. Autokontaketa liburua al da?

Bai, uste dut oso liburu berezia dela. Gurasoei nuen zorra kitatzeko modua izan da. Nire gurasoak hil ondoren egindako hausnarketa da. Beraientzat omenaldia izan da eta niretzat terapia modukoa. Liburu horretan min handia dago, barrenak askatzeko balio izan dit. Idazketa prozesua gogorra izan bazen ere, min hori sendatzen edo arintzen lagundu dit.

Ettxeko txoko eta elementu guztiak ikusarazten dituzu liburuan. Momentu batean etxea zer den azaltzen duzu: «izan nintzen umea: euri isil lerdin».

Bai, etxe hori izan nintzen umea da, hor nago ni; gure alderdi sentimentala, gure familiakoena etxe horretan dago. Izan nintzen umea ere hantxe geratu zen. Etxe horretan gora eta behera dabilen poetak ume baten begiradarekin, izandakoaren hausnarketa egiten du.

Liburuak pasarte batean bederatziz galdera egiten dituzte poetak. «Zergatik da berdina giltza etxea ez bada lehengoa?».



A. ALTUNA

«Liburuak idatzi edo irakurtzerakoan libre sentitzen naiz»

Nik galderak egin nituen eta erantzuten ez nuke jakingo. Etxea bera ez denean giltza ere ez da bera izango. Azken batean hitzen jolas bat da. Aita eta ama falta direnean nahiz eta etxea gauzez bete egon, etxe horrek beste zerbait iradokitzen dit. Nire memorian geratu den aspektu garrantzitsuenetakoa izan da; haur eta etza gazte denbora oso berezia da. Gai aldetik liburu triste bat bezala ikus daiteke baina baditu bere umorezko puntuak. Liburu nostalgiko bat bezala definituko nuke. Ez da oso bortitza he-

riotzarekin, ez daaipatu ere egiten. Badago, hor dago, azkenean auzentzia hori bera da. Ez da liburu mingarria. Umearen begiradak ere goxotu egiten du.

Zuk eginak al dira liburuak irudiak? Bakoitzak ba al du leku berezirik?

Bai, poesiak eta marrazkiak garai berean egin nituen. Irudiak liburu honetarako espresuki eginak izan ziren. Ez nekien nola geratuko zen baina gustura geratu naiz, marrazkiek batasuna ematen diote liburuari.

Bigarren lanean berriz, bizimodu materialista batetik uharte galdu batera daramatzazu agure batzuk. Utzi dutenaren hausnarketa al da?

Duela hogeitaz egun kaleratu da. Ironia eta umorea erabili ditut istorioaren kontaketa egiteko. Badirudi liburu arina dela, elkarrizketa eta gauza absurduekin erraz irakurtzen da baina azpian karga bat darama. Esaten denak eta esan gabe uzten denak berdin balio dute. Bi irakurketa desberdin egin daitezkeela esango nuke. Abentu-

razko istorio bat bezala irakur daiteke baina azpian galdera sakonak topa genitzake.

Zein irakurleentzat da Urperatze Handia?

Elkarren Ateko Bandan saila gazte eta helduei zuzendua da. Gazte batetik eta heldu batek irakurketa desberdina egingo duten liburu berezia da. Nire estiloa du, nire umorea.

Pertsonak zenbaki bihurtzen dira abenturan. Zergatik dira 22?

22 bi talde osatzeko akaso, hori izan liteke arrazoa. Zerbakiarena berriz zentzu militar bat ematearren egin nuen. Anonimatoa oraindik eta handiagoa da zenbakiak, eta berriz babesgabezia ere handitu egiten da izenak ere gal-

«'Etxe Hutsean' liburuan min handia dago; barrenak askatzeko balio izan dit»

«'Urperatze handia' abenturan protagonistek ez dute ezer soinean, ezta izenik ere»

etzen dituztelarik. Protagonistek ez dute ezer soinean, ez eta izenik ere.

Nor da Justino?

Justino beromalezalea *Etorriko dira berriak* nobelan azaltzen da. *Entzungailua* liburuan ere pertsona bera topa lezake irakurleak. Liburuaren arteko jolas bat da. Nire literaturari batasuna ematen dio, istorioak josteko modu bat da. *Urperatze handia*-n beste liburuetatik hartutako pasarteak aurki daitezke, ezer aldatu gabe. Irla galduan inkesta egin ondoren aterako emaitzak esaterako *Etorriko dira berriak* liburuan agertzen diren emaitza berberak dira. Azkenean nire obsesioak ez direla aldatzen ikusten da.

Momentu batean honakoa aipatzen da liburuan: «Hitzak hegazti aske eta hegalaria dira». Zer dira hitzak zuretzat?

Ba horixe bera. Pertsonaien arteko elkarrizketak oso jostalariak dira. Gai sakon batetik txorakeria bat esatera pasatzen dira momentu batetik bestera. Ez dakizu noiz ari diren benetan, galdera sakon horiek benetan pentsatzen dituzten edo denbora-pasan ari diren jakitea zaila egiten da sarritan. Irakurleak parte hartu behar du jolas horretan. Amaiera aldera, zantzu xalo bat ematen bada ere, istorioaren bukaera irekia uzten da irakurle bakoitzak bere erara irudika dezan.

Aurrera begira, proiekturik ba al duzu esku artean?

Durangorako aforismo liburu bat kaleratu nahian nabil. *Esan gabe doa* izango du titulua. Azken momentuan presaka gabilza, ez dakit seguru helduko garen oraindik. Aurkezpena behintzat aurreragorako utziko dut. Lan honetan hiru urtetako aforismoak bildu nahi izan ditut.

REBEKA CALVO

La Grave Frantziako Alpeetan dagoen herrirka da. Ecrins bailaran dago, Grenobletik 80 bat kilometrorra eta Briançontik 40 kilometro ingurura. Euskaldunen eta kataluniarren artean izotz eskalatzearengatik da ezaguna, nahiz eta azken urteetan geroz eta gehiago diren eskiatzera joaten direnak. Iraitz Ezkergain tolosarrak iaz ezagutu zuen La Grave. Lehenago ere bertan izana zen, baina pasa den urtean bost hilabete eman zituen bertan. «nola eskiatzen den eta, batez ere, mendian nola ibiltzen den ikasten», eta hil honetan bertan joango da berriz ere hara.

Tolosarrak barru-barruan darma eskiatzearena, urteak zeramtan bere teknika hobetzeko saioak egiten, baina iaz erabaki zuen azkenean lanean eszedentzia eskatu eta bere benetako nahiari bidea irekitzea.

Bidaia antolatzeko laguntza eskainiz

Ezker gainek *lagraveskiexperience@hotmail.com* helbide elektronikoa bidez La Grave ezagutzen ez dutenei bidaia antolatzeko laguntzen die. «Oraingoz gehienek salneurrien inguruan galdezen ditade, gauak non eman ditza keten... horrelako kontuak», argitu du.

Hemendik hara joaten direnei egiten dien gomendio nagusia bakarra da, hala ere: «Alpeak ez dira Pirinioak, ezin daitezke joan hemengo jokamolde berarekin. Nahiz eta hemen asko eskiatu hara joaten denak argi eduki behar du ez dela berdina; altuera handiagoa, ez daude pistak... ezin da berdineskiatu, a tope, hemen egiten dugun bezala. Orain bi urte sei lagun joan ginen hara eta porru eginda bukatu genuen, guk hemen eskiatzen genuen bezala eskiatu nahi genuelako, eta orain ikasi dut ezetz, lasaigo hartu behar ditugula gauzak. Mendia handiagoa da, denbora desberdinak behar dira gauzak ondo egiteko... ingurua ezagutzeko oso beharrezkoa da».

Berak egindako hutsegiteei esker La Gravera zein materialekin eta zein jarrerarekin joan behar den argitzen die *bezeroei*. Arestian aipatu moduan, egonaldia antolatzeko nahi dutenei ere informazioa eta lotura lanak egiten ditu. «Jendeak nahi duenaren arabera moldatzen dut egonaldia. 1.000 eurotan aste guztiko forfaita, gidaria, mantenu erdiko hotela... lotzen ditut. Salneurri horren baitan, gainera, eskiatuko duzula bermatzen dizute, izan ere La Graven bertan elur egokirik ez badago ere handik ordu batera bidaltzen dizute, Italiara, baina zuk ez duzu ezer egin behar. Bagara, hala ere, aste betetarako 1.000 euro ezin ditugunak ordaindu, eta nik bestelako irteerak ere antolatu ahal ditut», zehaztu du.

Aurtengoan, gainera, kamara bezala joango da. Ez du gidari lanik egin nahi, «erantzukizun gehiegi»



Iraitz Ezkergain tolosarra maiatzean joango da berriz ere La Grave alderantz. R. CALVO

Iraitz Ezkergain tolosarrak iaz bost hilabete eman zituen Frantziako Alpeetako La Graven eskiatzen. Bertara joan nahi dutenei informazioa ematen die, egonaldia lotu... Maiatza aldean bueltatuko da berriz ere.

Tolosatik La Gravera



Paisaia ikaragarriak ikusteko aukera izan du Ezkergainek, orain, gainera, mendiari eta naturari, orokorrean, gehiago erreparatzen diola dio. I. EZKERGAIN

delako, baina «gidariak baino diru gutxiagorengatik bertan buelta bat ematen dut jendearekin, duten maila ikusi eta horren arabera gomendapenak egiten dizkiet; zein lekuetan eskiatu ahal duten, nola...», dio.

«Sekulako egurra da»

Ezker gaini hemendik joaten den jendeak zerk harritzen duen galdetu diogu eta «sekulako egurra dela» esan du. «Oso altu dago eta garaierak bakarrik asko eragiten du. Nahiz eta %100 joan denbora behar da egokitzeko. Guk hemen ez daukagun zer bait da, bestalde, hemen 3.500 metrotik gora apenas eskiatzen da, ibilaldiak direnean bai, baina ez pistetan».

Iraitz Ezkergainek bere esperientzia elkarbanatu nahi du interesa duen edonorekin. Iazko abenturari esker mendia bizitzen ikasi duela dio, «mendian lasaigo ibiltzen ikasi dut, gauzak begiratzen... askotan jaitzietan bakarrik erreparatzen diegu, beste guztia ahaztuaz, baina orain beste modu batera ikusten dut».

La Graven mundu osoko jendearekin egoteko aukera izan duela argitu du eta haietatik ere ikasi duela dio. Bere asmoa, dena den, eskiatzeko teknika hobetzea zen eta hori lortzearekin batera —bizkortasuna areagotzea ere lortu duela dio— esperientzia berriak bizitzeko aukera du.

» HAINBAT GOMENDIO

- **Eskarmentua.** «Ez da ikastera joateko lekua, aurretik eskiatzen eskarmentua duen jendea izatea komeni da».
- **Gidariak.** «Hemen ez daukagu gidariak hartzeko ohitura, baina komenigarria da, are gehiago elurraren baldintzak ez badira egokienak».
- **Sasoi ona.** «La Graven eskiatzeko sasoi ona izatea ezinbestekoa da, honekin batera, hala ere, garaiera hartu behar da kontuan, izan ere mendien garaiera ikusita ez da zaila 3.700 metroetan aritzea. Horregatik gauza bera gomendatzen dut beti: lasai eskiatzea, behar diren atsedendialdiak hartuta, naturaz gozatuz...».



'Egunkaria libre' HITZAren egoitzan

'EGUNKARIA AUZIA' • Herenegun 19 urte beteko zituen *Euskaldunon Egunkaria*-k, itxi izan ez balute. Hilaren 15ean berriz, euskarazko kazetaren itxierari buruzko epaiketa jarriko dute martxan. Hau salatze eta auzipetuei babesa emateko, Durangon (Bizkaia), liburu eta disko azokan *Azoka hustu*, plaza bete ekimen ga-

rrantzitsua egin zuten herenegun. Bertan hainbat eta hainbat lagun elkartu ziren. Babesa emateko beste bide bat HITZA-ren Tolosako egoitzan aurkitzen da, *Egunkaria libre* kartela, hain zuzen ere. Araba Etorbideko 5era joan eta eskatzea nahikoa da. Ondoren baloi edo leku agerietan zintzilika daiteke aldarria. **HITZA**



Artisauak ikusteko azken aukera

TOLOSA • Lur Kolektiboak antolatutako duen artisautza azoka gaur amaituko da. Aurtengoa bigarren edizioa da eta nagusiko Nafarroako artisauak elkartu dira San Frantzisko pasealekuan. Erosketak egiteko aukera eskaintzen du azokak, baina baita eskulanean mundua gertutik jarraitzeko ere. Postuak goizez eta arratsalde zabalduko dituzte, 10:30etik 14:00etara eta 16:30etik 20:30era. **A. IMAZ**

Arretxe: «Topic-ekin etorkizuneko Titirijai jaialdia birplanteatu behar da»

Tolosa • Titirijai jaialdiko zuzendarietako bat, Miguel Arretxe, «oso gustura» gelditu da aurtengo ikuskizunekin.

ASIER IMAZ

Tolosako Nazioarteko Txotxongiloen Jaialdia iaz baino jende gutxiago gerturatu da aurtengoan, baina 14 edo 15 emanaldi gutxiago antolatutako direlako. Izan ere, proportzioan ikusle kopurua «antzekoa edo handiagoa» izan da.

Datu hauek eskuan dituztela, antolatzaileak «oso gustura» agertu dira balantzea egiterako unean. Kalitateaz hitz egiten hasten direnean berriz, «zoragarria, ikusgarria...» bezalako hitzak erabiltzen dituzte eta Topic aipatzean, malakoak ez dira urrun.

Irteeran, aurpegiatar begira

Miguel Arretxe Titirijai jaialdiko zuzendaria da, Idoia Otegiarekin batera. «Erabat baikorra» izan da berarentzat aurtengo edizioa: «Topic-en inaugurazioa kontuan hartu gabe, esan beharra daukat jaialdi askotan egona naizela. Gehienetan ikuskizun bat edo bi



Hurrengo urtean, Quebec-eko txotxongiloen lekua japoniarrek hartuko dute. **ESTI EZBZA**

egon ohi dira jaialdia salbatzen dutenak. Aurtengoren kasuan, horrelako lau edo bost egon dira: korearrak, tailandiarrek... kalitateagatik jende guztia harrituta utzi duten emanaldiak izan dira».

Ikusle kopurua oraindik zehazteko duten arren, Tolosa, Tolosaldea, Gipuzkoa eta Euskal Herriak hurbildu omen da jendea.

Arretxek badu eurekin egoteko ohitura, izan ere, jada ikusiak di-

tuen ikuskizunak gustura ikusten baldin baditu ere, nahiago izaten du irteeran kokatu eta jendearen aurpegira begiratu: «Ikuskizunak sortu dien gozamen maila bilatzen dut jendearen aurpegiarekin. Ikaste-

ko bide bat da gainera, ez baitugu haur gure gozamenetako antolatzen. Ikusle harritzeko, gustura egoteko eta zerbait berria, desberdina, eskaintzeko egiten dugu hau. Horregatik irteeran egotea interesatzen zaigu, jendearen erreakzioa ikusteko».

Aurpegiarekin zer aurkitu duen galdetuta, korearren lana azpimarratu nahi izan du Arretxek: «jendea liluratuta irteeraren zoragarria, hori olerkia, hori fintasuna... bezalakoak esanaz. Korearrek bereziki mundu guztia harrituta utzi dute».

Urte urte mugak hausten ari dira txotxongiloak, haurrentzat bakarrik ez direla erakutsiz. Miguel Arretxek argi du: «helduak dira gehien harrizten direnak. Eta horien artean harriztenak kontzeptu hori zutenak izaten dira».

Topic eta etorkizuna

Topic-en inguruan hitz egin aurretik, zer esan nahi duen ongi pentsatu behar du Titirijai zuzendariak: «... jaialdia amaitu zenean, trago bat hartzen ari nintzela, antzerkietan baino tabernan ikusten dudana jendea etorri zitzaidan Topic zentroaz hitz egiten: baina zein gauza zoragarria, zein polita... esanaz. Mundu guztia hunkitu duela iruditzen zait. Gero aurkako iritzia duenik ere egongo da baina gauza guztietan bezala».

Arretxeren esanetan oraindik ez gara jabetzen Topic-en benetako esanahiaz, izan ere, «hemendik urte batzuetara jaialdia bera ere birplanteatu egingo du Topic-ek. Horrelako gune bat duzunean, ia erabat txotxongiloetan zentratua, gauzak ongi pentsatu behar dira: jaialdiaren zentzua, dimentsioa eta maiztasuna birplanteatu egin beharko dira».

Hurrengo urtera begira, aurtengo Quebec-ek izan duen lekua Japoniak hartuko duela azaldu du Arretxek.

Iragarki laburrak

LANA

■ **Okindegi baterako.** Tolosako kafetegi-okindegia batean pertsona bat behar da arratsaldean lan egiteko. 25 urtetik gorakoa izatea eskatzen dugu. 661 46 31 93.

EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO

KULTURA SAILAK DIRUZ LAGUNDUTAKO HEDABIDEA

@ Iritziak, bideoak, azken berriak...

TOLOSALDEKO ETA LEITZALDEKO HITZAK irakurleen iritzia eta proposamenak jaso nahi ditu eta horretarako bide desberdinak eskaintzen ditu webgunean: *Zurea da hitza, eztabaidak, inkestak, bideoak...* Era berean, eskualdeko azken berriak ere jasotzen dira webgunean, eta baita hainbat bideo ere. Horretaz gain, webgunean zintzilikaturik dauden berrien inguruan zure iritzia uzteko aukera eskaintzen dizu ondorengo helbideak:

www.tolosaldeko-hitza.info



Billabonatarrak aurrera

VILLABONA » Larunbatean Euskadi Irratiko Hiru Erregeen Mahaia-ren Herriarteko Trindoor Txapelketaren Villabonaren eta Oñati-arten arteko final-laurdena izan zen. Azaroa-

ren 14an amaitu ez zuten saioa izan zen, hain zuzen. Villabona sailkatu zen 15 minutu eta 34 segundoko markarekin. Oñatik 15 minutu eta 41 segundo egin zituen. **HITZA**



Idiak, garo metak eta uztarriak

ALKIZA » Ohitura eta tresna zaharrak berreskuratzeko asmoz uztarri erakusketa izan dute egun hauetan Alkizako Kultur Etxean. Herriko bertako baserrietako uztarriak dira

eta hauekin batera argazkiak ere bildu dituzte, umeen eskulaneekin eta ikus-entzuzko batekin batera. Gaur da erakusketa ikusteko azken aukera (11:00-13:00). **R. CALVO**



Kantabrikon zain egon zen Mendizabal, baina ez zen inor agertu. **E. MAIZ**

Bakarrik geratu da Mendizabal

Aduna » Pasa den azaroan bota zuen desafioa aizkolariak eta hilak 5erako egin zuen hitzordua; ez zen inor azaldu, ordea.

gero. Pasa den larunbaterako lotu zuen hitzordua, Kantabriko tabernan, baina ez zen inor agertu.

Bi 80 ontzako etzanda eta bi kanako zutik

Adunarraren asmoa bi 80 ontzako etzanda eta bi kanako zutik jarrita moztekoa zen. Mindegiari bi minutuko aldea eskatzen zion proba horretan eta gainerakoei urte bakoitzeko minutu erdiko aldea. Oraigoan ordea, ez diote desafioa hartu Mendizabali.

ERREDAKZIOA

Joxe Mari Mendizabal aizkolari adunarrak desafioa bota zuen pasa den azaroan Miel Mindegiak eta Donato Larretxeak Tolosako zezen-plazan egindako apustua eta

Asier Olaizolak 17-22 irabazi dio Aritz Beginori Beotibarren

Pilota » Giro ederra izan zen Txuleta Festaren harira egindako pilota jaialdian; bestalde, Jaunarenak 18-5 irabazi zion Jauregiri.

ERREDAKZIOA

Giro ederra izan zen atzo Tolosako Beotibar pilotalekuan gaur bukatuko den Txuleta Festaren harira izandako BBK Txapelketako pilota partidari. Olaizola I eta Begino aritu ziren kantxan eta Olaizolak irabazi zuen, azkenean, 17-22.

Partida hasterakoan Aritz Begino irabaziko zuela zirudien, sakekin min handia egin baitzion Asier Olaizolari, baina azkenean Olaizolak kasta atera eta mendean hartu zuen Begino.

Jaunarena leitzarra garaile

Bestalde, Leitzako Jon Jaunarenak beste garaipen bat lortu zuen herenegun Iruñeako (Nafarroa)



Jaunarena eta Jauregi Guillermo Mazo Txapelketa bukatzerakoan. **HITZA**

Labrit pilotalekuan izandako Guillermo Mazo Txapelketako finalean. Aurrerako pilotariak jubentako azken lehia izan zuen Txaruta Pilota Eskolako Jauregiren aurka eta leitzarrak irabazi zuen 18-5.

Nafar Jokoei dagokionez, finalerdia jokatu zituzten herenegun Zizur Nagusian (Nafarroa). Hegoi Txoperena eta Oier Goikoetxea leitzar gazteak osatutako bikotea aritu zen, eta 18-16 galdu zuten.

Hilberriak

Tolosaldeko eta Leitzaldeko HITZAn jarri eta Gipuzkoako beste 4 Hitzetan **DOAN** agertuko da

hilberriak
urteurrenak
eskertzak

HITZak Gipuzkoan 120.000 irakurle

ESKELAK • 19:00ak arte hartzen ditugu • tolosaldean@tolosaldekohitza.info / Tel.: 943-65 56 95

MIKAELA OIARTZABAL MENDIOLA

Pello Zelarain euskal preso politikoaren ama
Oskar eta Julen Zelarain
euskal preso politikoaren amona



Maite zaituztegu

Villabonako ezker abertzalea

VILLABONAN
2009ko
abenduaren 8a

E **Elkarrizketa**

AITOR MENDILUZE » Bertsolaria

Bertsolari Txapelketa Nagusia » Hilaren 13an BECen jokatu da finala; zortzi finalisten artean eskualdeko ordezkari bat izango da beste behin ere, Aitor Menduluze, hain zuzen.

ESTI EZEIZA

Urriaren 3an abiatutako errusiar mendia iristear da helmugara, hau da BECera. 44 bertsolarirekin ekin zion bidaiari eta tartean geldialdi ugari egin ditu. Orain, azkeneko zortzi bidaiariak jaisteko garaia iritsi da. Hilaren 13an jokatu da Bertsolari Txapelketa Nagusiko finala eta zortzi hauek ariko dira bertsotan, taula gainean: Andoni Egaña, Maialen Lujanbio, Amets Arzallus, Aitor Menduluze, Jon Maia, Unai Iturriaga, Aitor Sarriegi eta Sustrai Colina. Honenbestez, eskualdeko ordezkari bat izango da BECen.

Oro har, gustura al zaude orain arte egindako lanarekin?

Beno, neure gailurra jo gabe nagoela uste dut, baina sentsazio onak ditut orain artekoari dagokionez. Ondo sentitu naiz Txapelketan, lasai eta konfidantzaz, eta agian tentsio puntu bat handiagoarekin gehiago eman ahalko nukeen arren ez daukat kezatzeko arrazoi gehiegirik.

Saio bakoitza, distantziatik, orain, nola ikusten duzu? Zenbat aldiz entzun dituzu Bergaran eta Iruñean botatako bertsoak?

Bergaran saio osoagoa egin nuen, gusturago geratu nintzen. Iruñean ez nintzen behar bezala konzentratu kartzelatik itzuleran, eta ez nion lan horri berez zeukan zuku guztia atera. Bergaran aldiz, gehiago asmatu nuela uste dut, eta saioa gehiago borobildu nuela. Bertsoei dagokionez ez ditut entzun, baina ez arrazoi jakin batengatik, jarri ez naizelako baizik.

Finalera bitartean, zer daukazu hobetzeko?

Konzentrazioa eta tentsioa mantendu behar da final handietan, eta oso saio luzea da BECekoa. Hala ere, orain arte emandakoa berdintzeko aukerarik banu hortik aurrera egin dezakedan guztia ontzat emango nuke. Ez dakit zehazki esaten zer falta edo zer sobratzen zaidan, eta alde horretatik burua gehiegi jan gabe ari naiz. Hobetzeko asko dago beti, baina dagoenak ez dauka zertan hain txarra izanik ere, ezta?

Bergarako saioaren ostean, bigarren geratuta, jendeak ziurtzat jotzen zuen finalean sartuko zirela. Lasaia go aritu al zinen Iruñean?

Batek baino gehiagok esan dit ahal nuen guztia eman gabe aritu nintzela Iruñean, baina ni ez nago hain ziur. Eman ez banuen ez zen lasaitu edo konfiatu nintzelako



BERTSOZALE ELKARTEA

«Txapela janztearena ez da gehiegi kezkatzen nauen gaia»

izan, hori ziur. Iruñean ere onena ematen saiatu nintzen, baina egun denak ez dira berdin, eta bakoitzean egun horretakoa baloratzea da gokigiu.

Hemendik finalera bitartean, egunerokoarekin nola jarraitzen da? Oporrak hartu al dituzu lasaia go ibiltzeko, edo beti bezala zabilta?

Hemendik finalera egunerokoarekin jarraitu beharra daukat nahi edo ez, baina aukeran nahiago dudala esango nuke. Errutinek egiten gaituzte neurri batean, eta garai txarra izan liteke errutinak alda-

zaten hasteko. Betiko moduan segi eta ahalik lasaien egoten saiatuko naiz, besterik gabe.

Bertsolaria, neurri handi batean aktorea da. Zenbateraino zara zu aktore abestean? Zenbateraino saiatzen zara Aitor Mendiluzetaz, eta zuk pentsatzen duzuenetik abesten?

Bertsolaria aktorea baino bere sorkuntzaren interpretea da baina baita bere obraren zuzendari ere, eta beraz bere burua ahalik eta gehien islatzen saiatzen da egiten duen hartan. Neu ere hala sentitzen naiz, nahiz eta zenbait egoera

edo mementotan errazagoa den norberetik irten eta erlaxazioa den bat hartzea. Gu geuregatik eta geuretzat aritzen gara neurri handi batean.

Txapelketan hasi aurretik zenioen, finalistaren artean ez zela aldaketa handiegirik egongo, eta horrela izan da. Zer moduzko zortziko ikusten duzu?

Taldeak ez du aitzakiarik, finalista guztiek erakutsi dute hor egotea merezi dutela, eta beraz bakoitzarengandik bere onena espero behar da. Han ematea edo ez hainbat faktoreren mende egongo da, bai-

na hori lortzeko ahalegina eskatu behar zaio gutako bakoitzari.

Sarriegi izango da finalean lehendabizikoz izango den bertsolari bakarra. Beti hor goian ibili ostean garaia iritsi zaio. Merezita?

Zalantzarik gabe bai. Lehen ere geratua da final handiaren atarian, eta urteak daramatza bere maila erakusten. Gertatzen dena da postuak hain mugatuak direnean beti

Hemendik finalera egunerokoarekin jarraitu beharra daukat nahi edo ez, baina hobeto horrela**Urte askotako lana, apustu eta bizioaren ondorio da bertsolaritzak bizi duen une gozoa**

geratu behar duela norbaitek kanpo, horregatik ez da orain artean finalean sartu izan.

Azken finalaurrekoetan sarrearak agortu dira, baita finalerako ere. Maialenek abestu bezala, «hau ez da booma, hau ez da fama, baizik eta urteetan, ondo egindako lana». Horrela al da?

Bai, urte askotako lana, apustu eta bizioaren ondorio da bertsolaritzak bizi duen une gozoa. Horrek inbidia eta kritika batzuk ere sortarazten ditu, baina inolako harrokeririk gabe esan dezakegu asmatu eta merezi dugula, eta gure erroreak dela horri jarraipena ematea.

Oraingoan ere, gutxigatik bada ere, emakume finalistak bakarria izango da. Hala ere, aldaketa eman omen da. Horrela dela uste al duzu? Eta hala bada, zertan nabaritu duzu?

Kopuruan behintzat aldaketa nabarmena izan da, inoiz baino emakume gehiago izan direlako Txapelketa honetan. Dena dela ez da atzo hasitako fenomeno bat, jada urte batzuk badituen iraultza bat baizik. Bertsolaritza eta bertsogintza oso espresio bizia eta gaur-gaurkoko da, eta ondorioz errealitateari egokitzeko ari zaiona. Hau egokitze horren adierazle bat da, eta ez bakarria.

Txapela janzteak zer suposatuko luke zuretzat?

Ilusio handi bat eta konpromiso handi bat ere bai noski, baina ez da gehiegi pentsatu dudana gai bat, ez nau kezkatzen horrek. Orain finala da buruan daukaguna, bertsoa eta eman beharreko beste guztia, eta ondorioez hitz egingo dugu ondoren.

Finala eta gero, zer?

Finalaren biharamunean ere argituko du eguna eta betiko bideari jarraitzen saiatuko gara bakoitza. Gu ez gaitu hainbeste aldatuko, izatekotan ere bere arrastoa gugan uztea baino gehiago plazarengan, bertso eskolengan eta inguruko eragileengan uztea nahiko nuke, baina hori ikusteko denbora gehiago beharko da.

1940. urteaz geroztik, egunero egunero artisau eran egindako ogia erretzen dute Martaxenea baserrian. Modu honetan ogia erretzen duten okindegi gutxi dira inguruan.

Egurrezko labea Areson

AGURTZANE BELAUNZARAN

Hotz egiten du Areson. Martaxenea baserriko atarian egur pila handi bat dago eta atek irekiak, goizean goizetik. Sartu eta labearen beroak goxatu du kanpoko hotza.

Juan Belaunzaran, labearen sabeletik ogiak banaka banaka ateratzen ari da, pala luze luzea eskuan duela. Bigarren labekada da, eguneko azkenekoa.

Carmen Onsalo, bezero batekin dago. Egunero erosten dion baserriko ogia paper txurian bildu dio. Ez da plastikorik erabiltzen Areson. Etxekoandreak, ogia magalean hartu eta kontu batzuk esan ostean etxera ko bidea hartu du.

Gerra ondorengo labea

1940az geroztik dago martxan egurrezko labea. Gerra ondorengo urte zailetan ireki zituzten baserriko atekak, Carmenen gurasoek, ogia saltzeko. Labe txiki batekin hasi ziren lanean, orduan herrian ere

ogia egiten zuten baserriak baziren eta. Duela 40 urte inguru ordea, labea haunditu zuten.

Gogoan ditu Carmenek, gurasoek okindegia ireki zuteneko garaia. «Razionamendukoak» alegia, irin nahikorik ez eta estrapelotan ekartzen zenekoa.

30 urtez, igandero Aresoraino propio joaten dira baserriko ogia erostera

1980an, gurasoak jubilatu zirenean, ofizioari segidaman asmoz, etxeko alaba Carmenek eta bere senarrak, Juanek, ogia egiteko sekretuak ikasi zituzten.

Oilarrak baino lehen

Oilarrak kantuan hasi baino lehen jeikitzen dira senar-emazteak. Goizeko hirurretan, Martaxenea baserrian argiak pizten dira. Labea egurrez bete eta ogi goxo-goxoa



Juan Belaunzaran labetik ogiak banaka-banaka ateratzen AGURTZANE BELAUNZARAN

erretzeko prestatzen dute. Goizeko 06:30erako prest da lehenengo errealdia. Badira, ordu horretarako ogia erosten duten bezero goiz-

tiarrak. Lanerako edo eskolarako hamaiketako egiteko, ogi egin berriaren bila joaten direnak.

Astean zehar, herriko jendea

hurbiltzen da okindegira. Astebukaeretan berriz, inguruko herrietatik jende ugari etortzen da ogia erostera propio. Beraiek lanean hasi zirenetik etortzen denik ere badela azaltzen du Juanek, «30 urtez, txintxo txintxo, igandero eta jai egunetan».

Udazken partean ehiztariak eta udaran berriz, egun pasa etortzen direnak eta kanpotar turistak ere hurbiltzen dira, artisau ogia erostera.

«Migas de pan egiteko ere ogi aproposa» dela azaltzen du Carmenek. Inguruko herrietan bizi diren extremadurarrekin, «gustuko» dute Aresoko baserriko ogia, beraien plater ohikoa egiteko.

Ogi banaketa

Bigarren labekada 09:30ak alderako ateratzen dute. Carmen okindegian geratzen da eta Juanek, furgoneta zuria martxan jarri eta ttur-ttur abiatzen da, Astamela zubipean barna, Urtoko eta Leitzako baserrietara banaketa egitera.

Bueltan, etxe ondoan aritzen da lanean, aizkora kolpean, hurrengo egunean, labea berotuko duen egurra mozten. Bazkalorduan ixten dira okindegiko atekak, hurrengo eguneko ordu txikiak arte.

Martaxeneko baserrian ez dago okindegia jartzen duen kartelik. Betiko bezeroek, jakin badakite egurrezko labearen sabelean, egunero-egunero, mimoarekin egindako ogia erretzen dela. Aresora iritsi eta labearen beroa somatzen ez duenak, herritarren bati galdetu besterik ez du.

«Mimoarekin egindako ogia da gurea, artisaua»

CARMEN ONSALO ETA JUAN BELAUNZARAN › Okinak

Areso» Inguruan den egurrezko labe bakarra den arren etorkizunik ez die ikusten ofizioari Carmenek eta Juanek.

A. BELAUNZARAN

Jai egunik gabeko ofizioa da berriena. Baserriko atek 70 urtez, egunero-egunero irekiak izan dira: azken 30 urteetan Carmen eta Juanen eskuek oratu dute ogia.

Nolakoa da zuen lan eguna?

Juan Belaunzaran. Goizeko hirurretan jeikitzen gara asteke zazpi egunetan. Labea piztu, ogi masa egin, labea garbitu eta ogia erre. Egunero bilabekada egiten ditugu. Astebukaeratan berriz, hiru errealdia izaten dira. Eguerdi aldera, ni banakea egitera joaten naiz baserritara eta Carmen okindegian geratzen da.

Egunero egunero....?

Carmen Onsalo. Bai, egunero egunero. Urtean bi egun bakarrik egiten ditugu jai, Gabon Egunean eta Urtezaharretan. Gainontzeko egun guztiak lan egunak dira guretzat, ez dugu oporrik ezagutu. Ogia



Juan eta Carmen senar-emazteak, labetik ateratako ogi berriak sailkatzen AB

beharrezkoa da otorduetan eta bu-rukoko mina baduzu ere lanean jarraitu beharra dago gurean. Hemen ez dago atsedeenik.

Urteetako lanbideak segidarik bald du?

J.B. Ez ez, etorkizunik ez dago hemen. Guk uzten dugunean, buka-

tuko da ofizioa. Lana oso gogorra da. Emazteak eta nik bakarrik egiten dugu lan eta guretzako adina lan sortzen da.

Inguruan ba al da egurrezko labean ogia erretzen duen okindegirik?

J.B. Orain ez da egongo noski. Le-

hen baziren Ezkurrán eta Saldiasen, baita Zubietan ere. Baina, haiek labe elektrikoak jarri zuten. Inguruan bakarrik garelako uste dut. **Labe elektrikoak aurre hartu dio egurrezkoari orduan?**

J.B. Lan egiteko modua askoz ere erosoagoa da labe elektrikoekin,

praktikoagoa. Lehenik eta behin, elektrikoak ez dago egunero garbitu beharrik. Gurea berriz bai. Okindegietan, ogiak karro batean sartzen dira. Guk, berriz, palarekin banaka-banaka sartzen ditugu labean, baita atera ere. Gurea mimoarekin egindako ogia da, artisaua. **Konpetentzia handia al du egungo ogiekin?**

C.O. Konpetentzia badago bai. Gaurko gazteek nahiago dute ogi zuri eta xamurra, moldeko horietakoa. Okindegi industrialetan ere, ogia izoztu egiten dute eta gero momentuan erre. Gurean, goizean masa egin eta ogiak egiten ditugu. Ogia labetik atera arte hiru ordu eta erdi behar dira. Ogi desberdina da, eta hori gustuen araberakoa da, noski. Gure bezeroek gustuko dute eta guretzat nahikoa da hori. Bezero batek, Berrobira eramaten du igandero baserriko ogi handia. Xerratan moztu, plantxan berotu eta urdaiazpikoarekin jaten omen dute. Eta ez da nik esandakoa, Argiñanori entzun niona baizik «ogi onak, azala gogorra eta kraskaria behar du», eta ez zaio arrazoirik falta. Naturala izateko, ogiak horrelakoa izan behar baitu.



Argitaratzailea: Tolosa Herria Hedabideak S.L.
Lege Gordailua: SS-0398-03
Zuzendaria: Noelia Lataburu
Egoitza nagusia: Araba Etorbidea 5, atzea, Tolosa.
Telefona: 943 65 56 95. **Faxa:** 943 65 00 18
Leitza: Herriko plaza, 1. 687 410 118
E-posta: tolosaldean@tolosaldeko-hitza.info.
Webgunea: www.tolosaldeko-hitza.info

Zuzendariordea: Iñigo Terradillos. **Kudeatzailea:** Maider Garaikoetxea.
Publizitatea: 661 678 818 tolosa@iragarri.net.
Tolosa: 687 410 082-687 410 033. tolosa@tolosaldeko-hitza.info.
Villabona: 687 410 022. villabona-aiztondo@tolosaldeko-hitza.info.
Anoetaledea: 687 410 022. anoetaldea@tolosaldeko-hitza.info.
Ibarraledea: 687 410 032. ibarraledea@tolosaldeko-hitza.info.
Alegialdea: 687 410 034. alegialdea@tolosaldeko-hitza.info.
Leitzaldea: 687 410 118. leitzaldea@tolosaldeko-hitza.info.

Tolosa Herria Hedabideak S.L.ko kideak:

BERTAKO HEDABIDEAK



eta Tolosaldeko eta Leitzaldeko beste 77 eragile

Hitza-k Bai Euskarari



'Hitza' diruz laguntzen duten erakundeak. Udalak: Aduna, Alegia, Alkiza, Altzo, Ametzeta, Anoeta, Areso, Balañarain, Belauntza, Berastegi, Elduain, Gaztelu, Hernialde, Ibarra, Ikaztegieta, Irura, Leaburu, Leitza, Tolosa, Villabona, Zizurkil

Gipuzkoako Foru Aldundia

Hitza-ko bezeroen arreta zerbitzua (zalantzak argitzeko, harpidedun egiteko): **902 82 02 01**

A Agenda

Kirola

■ **Asteasu.** Nazioarteko Ziklo-kros Txapelketa Elizmendi auzoan: 13:45ean kadeteak eta neskek, 14:30ean juniorrak eta 15:45ean proba nagusia. Antolatzailea: Aitzondo Txirrindulari Elkarte.

Deialdiak

■ **Tolosa.** Emakumeak eta migrazioak komiki lehiaketa martxan da. Lanak hilaren 30erako entregatu behar dira Tolosaldea Garatzeneko Immigrazio Sailean (943 65 45 01).

Erakusketak

■ **Tolosa.** Ignacio Garciaen margolanak ikusgai Itaie tabernan.
■ **Tolosa.** Tolosarra angularra Iñaki Elolaren argazki erakusketa, Beti Alai tabernan.

Musika

■ **Tolosa.** Inmakulada meza Santa Maria parrokian 12:00etan, bertako Musika Kaperak Eduardo Mokoroaren *San Juan Bautista Meza* eta Felipe Gorritiren *Magnificat* interpretatuz. Ondoren, Udal Txistulari Bandak kontzertua eskainiko du udaletxeko arkupeetan.

Zinema

■ **Tolosa.** Leidor aretoan, gaur: 17:00etan, *Cuento de Navidad* filma eta 19:30ean eta 22:30ean, *Millenium 2*. Bihar (ikuslearen eguna): 20:30ean, *Millenium 2*.
■ **Villabona.** Gurea aretoan, gaur (ikuslearen eguna): 17:00etan, *Pluk* (euskeraz) eta 19:30ean, *Amelia*.

GUARDIAKO FARMAZIAK

■ **Ibarra.** Ugarte, M.T. Euskal Herria, 46. 943 67 32 74.
■ **Leitza.** Campos, M.Z. Elbarren, 52. 112.

TELEBISTA

28 Kanala

08:30. Lamien artean. **09:00.** Muka-Muka. **09:30.** Tolosaldean Gaur. **10:00.** Perretxiko. **10:30.** 28 klip. **11:00.** Ikusmira. **11:30.** Tolosaldean Gaur. **12:00.** Estetika. **12:30.** Ur eta Lur. **13:00.** Alex eta Alexis. **13:30.** Tolosaldean Gaur. **14:00.** Perretxiko. **14:30.** 28 klip. **15:00.** Ikusmira. **15:30.** Tolosaldean Gaur. **16:00.** Estetika. **16:30.** Ur eta lur. **17:00.** Alex eta Alexis. **17:30.** Tolosaldean Gaur. **18:00.** Kalekantai. **18:30.** Ilunpean. **19:00.** Erloklip. **19:30.** Tolosaldean Gaur. **20:00.** 28 kirolak. (*16:30etik 20:00etarako blokea 4 orduko errepikatzen da).

IRRATIA

Txolarre irrati

Tolosaldeko Ahotza:

-**11:00-12:00.** Albistegia (Eguraldia, eskualdeko albistekak, oharra, agenda...)
-**12:00-13:00.** Magazina.
-**13:00-13:30.** Lehiaketa eta disko eskainiak.
13:30-14:00. Egurdiko albistegia - Info 7.
14:00-15:00. Tolosaldeko Albistegia.
17:00-18:00. Musika nobedadeak Tolosaldeko Ahotza (errepikapena):
-**18:00-19:00.** Magazina
-**19:00-20:00.** Albistegia
20:00-20:30. Iluntzeko albistegia, Info 7.

HITZAK ez du bere gain hartzen egunkariaren adierazitako esanetan eta iritzien erantzunkizunik.



Maxi Eroski pareko zubia zabalik

TOLOSA ■ Ireki dute jada Tolosako Maxi Eroski eta Araba etorbidea lotzen dituen oinezkoen zubia. Mustad Auzoko bizilagun asko kexu ziren, izan ere Araba etorbidera joateko zubietara iristeko bide luzea zutela

zioten. Lanetan, hala ere, izan dira gorabeherak; uztailean, esate baterako, materiala eramatera zihonan trilerira irauli egin zen eta ikusmin handia sortu zuen horrekin egun osoan zehar. R.CALVO

A Agurrak



Zorionak Fermina!

Gaur 90 urte. Ondo pasa eguna, zure familiarren partetik.



Zorionak Onintza eta Ion!

Ongi etorri Maier! Muxu bana etxekoan, eta batez ere, Uxuen partetik.

agurrak

urtebetetzeak
urrezko ezteiak
ezkontzak
jaioberriak
jaunartzeak...



HITZAK **bi sarrera** pare ditu

Aitarene bidean

antzerki saiorako

Abenduak 11
Ostirala • 20:30ean
Tolosako TOPiCen



HITZAK **sarrera bat** du

Euskal Herriko Bertsolari Txapelketaren **FINALERAKO**



Abenduak 13 • Igandea
BEC-en

HITZAK **sarrera pare bat** du

Tolosako Orfeoa

Gabonetako kontzertua

Abenduak 23
Asteazkena • 20:30ean
Leidor aretoan

